

tzakeela. Beste hizkuntzak ez dira kaltegarriak ama-hizkuntza-erentzat; alde-rantziz, beste hizkuntza batzuk ikasteak ama-hizkuntza indartu egiten da. Zergatik? Hizkuntza gaitasuna lantzen delako azken finean», diote.

Gero eta gazteago

Gaur egun ingelesaren derri-gorrezko irakaskuntza lau urteko haurrekin hasten da. Ingelesa haur gazteenei gerturatzea da helburua, hizkuntza arrotza izan ez dadin.

Content Based
metodoan ingelesa
beste gai batzuk
lantzeko ere
erabiltzen da

Horretarako ordu erdiko hiru saio egiten dira astean, ipuinak, jolasak, kantak... landuz, euskara ikasteen egiten dituzten ariketa edo jardura berak alegia.

Ingelesa ikasten zenbat eta gazteago hasi, haurraren jarrera ezberdina dela azpimarratzen du Rosa Aliagak. «Ingelesa ikasten zenbat eta gazteago hasi, orduan eta errazago onartzen dute ingelesa. Urteak pasa ahala, normaltzat hartzen dute irakaslea erabat ingelesez aritzea eta ahoko ulermena lantzen dute».



PABLO S. QUIZA

■ Gema Gurrutxaga eta Rosa Aliaga ingeles irakasleen esanetan, motibazioa oso garrantzitsua da.

Betea

Betea, Euskal Herriko Ingeles Irakasleen Elkarte, 1995ean sortu zen, bertako ingeles irakasleen topagune izateko, ikastetxeen egituratik kanpo. Gaur egun 250 bazkide inguru ditu elkarteak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Hiru hilabeteko aldizkari bat kaleratzen dute eta urtero Ingelesaren Pedagogia Jardunaldiak antolatzen dituzte.

Rosa Aliaga da elkartearen presidentea eta Gema Gurrutxaga, berriz, Gipuzkoako lehendakariordea. Rosa Aliagak salatzen duenez, ingeles irakasle-

ek eskoletan bizi duten egoera ez da onena. «Especialistak gara, ez gara tutoreak. Gainera, irakasle bakar batek maila guztietako haurrei eman behar die klasea. Askotan irla bat gara eskoletan, eta ez gaude integratuta erabaki guneetan, planifikazioetan».

Prestakuntza sakondu beharra ere azpimarratzen du. «Klasean egiten dugun ingelesa oso oinarritzkoa da eta gure prestakuntza hobetzeko beharrezkoa da euskara irakasleen irale moduko zerbait».

Ingelesa, eskolako hizkuntza

Ikastetxe gehienetan ingelesa ikasgai arrunta da, matematika, natur zientziak edo soin hezkuntza-ren modukoa. Beste batzuetan, berriz, hizkuntza nagusia. Mota horretako ikastetxea da Donostiako The English School. Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntza-ren lehen zikloan ingelese da nagusi, euskara eta gaztelarari dagozkion orduetan ezik. Lehen hezkuntzako gainontzeko mailetan, berriz, 11-12 ordu-tan jarduten dute ingelesez; ingelesaz gain, baita beste ikasgai batzuetan ere. Eskola orduetatik kan-

poko ekintza batzuk ere hizkuntza lantzeko baliatzen dituzte: tailerrak (eskulanak, sukaldaritza...), laborategiak...

Manoli Bravo The English Schooleko ikasketa buruaren esanetan, «helburua da ikasleek ikasketak bukatzean ingelesez txukun komunikatzea eta euskaraz eta gaztelaraz beste ikastetxe batzuetako ikasleen moduan moldatzea».

Izan ere, The English Schoolen ingelesa ez da ikasgai soila, ikastetxeko komunikazio hizkuntza baizik. Ingelesez hitz egiten dute ikastetxean, ikastetxetik

kanpoko ekintzetan... Ingelesaren irakaskuntza bi urteko haurrekin hasten dute. Mati Carvallo zuzendariak dionez, «ondorioz, ingelesa ez zaie arrotza egiten eta beren unibertsoa, ama-hizkuntzaz gain, ingelesez ere eraikitzen dute. Teoriaz gain, espresatzen ere ikasten dute».

The English Schoolen ikasleek hiru hizkuntza lantzen dituzte: ingelesa, euskara eta gaztelera. «Haurrek modu normalean jasotzen dituzte eta ez da gatazkarik sortzen», dio Carvallok. «Hiru hizkuntzen arteko armonia dago».

ZAMUDIOKO ESKOLA

S. MARTIN AUZOA, 193 / 48170 ZAMUDIO

- ✓ D Er.- 2 urtetik hasita.
- ✓ 4 urtetik aurrera, musika eta ingelesa.
- ✓ Jantokia.
- ✓ Informatika eta musika gela.
- ✓ Laborategia-Liburutegia.
- ✓ Psikomotrizitate gela.
- ✓ Euskal-kultur giro eta ekintzak.
- ✓ Irteerak eta barnetegiak.
- ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak

Tel.: 944 52 13 49

Faxa: 944 52 08 26

Posta Elek.:


014489aa@hezkuntza.net

KARMELO IKASTOLA SANTUTXUKO IKASTOLA

Marcelino Menendez Pelayo kalea, 12-14

94 433 30 01 / Faxa: 94 433 87 59

FLOREAGA SALESIAR IKASTETXEA



- 2 URTETIK 16 URTERA ARTEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA.
- JANGELA, ESKOLAZ KANPOKO ETA ASTIALDIKO EKINTZAK.

Izarraitz, z/g • Tel.: 943 853 043 • Faxa: 943 857 021 • AZKOITIA
E-mail: floreaga.sdb@jet.es



ABADIÑOKO INSTITUTUA

- DBH Ikasketak (12-16 urte) D eta B ereduetan
- Garraioa eta Jantokia
- Liburutegia: Egurdieta irekita ikasleek lan egiteko eta ikasteko.
- Bulego orduak: 8:30etatik 13:00etara.
- Tra a-Etxoste, 10
- Tel./Faxa: 94 620 31 88
- E-mail: 015071aa@hezkuntza.net
- iesaba@telefon.es

MATIENA-ABADIÑO

EGIN EZAZU ZURE AUKERA ESKOLA PUBLIKOAN

HAUR HEZKUNTZA LEHEN HEZKUNTZA

■ GAINZURI URRETXU-ZUMARRAGA

Santa Barbara errepidea z/g • URRETXU
☎ 943721214-943721354 • Faxa: 943721214

■ DOMINGO AGIRRE

Urtatza z/g • LEGAZPI
☎ 943730068 • Faxa: 943731822

D.B.H. BATXILERGOAK HEZIKETA ZIKLOAK

■ JOXE M. IPARRAGIRRE B.H.I.

Santa Barbara errepidea z/g • URRETXU
☎ 943721403 • Faxa: 943721403

■ OLAZABAL INSTITUTUA

San Martín, 16 • LEGAZPI
☎ 943734340 • Faxa: 943730575

